


---

**Nader Koochaki** *Soineko paisaia*



**CD Paisaia itsuak/Paisajes ciegos**

---

**#11 Nader Koochaki** *Artaldeak: 3, 8 eta 12*

07:47

Editoreak ale honetan eskuartean darabildan egitasmoaren berri emateko interesa adierazi zidanean, nire egitasmoak paisaiarekin izan zezakeen zerikusiaz jabetu nintzen. Egitasmo horren bidez, artzaintza ardatz hartuta, bitartekaritzaren nozioaren gaineko gogoeta egin nahi izan dut. Horretarako, zabaldutako ildoen arteko bat da ondoren datozen lerroetan paratzen dudana: Gipuzkoako ehun burutik gorako artaldean erregistroa osatzeko asmoa. Zuzenean alde batera utziko ditut artzaintzaren jardueraren gainean antropologiatik egin diren irakurketak, (nahi duenak Fermin Leizaola du haren gainean gehien idatzi duen antropologoa), osatu gura dudan artxiboak *Zehar* aldizkariko ale honekin izan ditzakeen loturak azaleratzen saiatzeko.

Garapen ordenatu eta koherentea egitea baino, nahiago dut (uler bedi alferkeria edo ezgaitasuna dela, hala nahi bada) gaiaren gaineko ohar edo gogoeta batzuk egin, eta,aldi berean, grabaketan ohar koadernoko pasarte batzuk transkribatu.

#### *Bitartekaritzaz*

Artzaintza bitartekaritzaren nozioaz hitz egiteko testuinguru paregabea dela iruditzen zait: ikuspegi murriztaile batetik begiratuta, hainbat dispositiboren bitartez, artalde bat gobernatu eta baliatzen duen banakoaren eskema eskaintzen digu. Sistema hori artzain txakur txapelketetan sintetizatzen da erabat; izan ere, artzaintza-jarduera jokoaren lengoaiara itzulita, txakurraren bitartez animalia multzo bat gidatzen duen gizakiaren irudia erakusten baitugu. Txakurra dugu hemen bitartekari gorena, giza eremuaren eta animalia eremuaren artean alderrai, zubi-lanak egiten. Ebidentzia horretatik abiatuz, kategoria zubigile berean koka ditzakegun hainbat elementutara hel gaitezke. Horien arteko bat dugu zintzarria.

Zintzarria artzainak artaldea identifikatu eta lokalizatzeko darabilen bitarteko edo teknologia da. Alde batetik, jabego marka da, eta, bestetik, kontrolerako mekanismoa. Zintzarriak non soinu egin eta nolako hotsa sortu, horien araberako identitate eta identifikazioak mamitzen ditu. Distantzian lan egiteko modu bat da. Artzainaren luzapena da zintzarria, ardiaren gorputzari atxikia. Artzainaren lengoia, ardiak gorputua. Ardiak soinean daraman soinua.

Belarrietako ebakiak bezala, bizkarrean pintatutako kolore markak bezala, ardiei atxikitako zintzarriak artaldeak bereizteko artefaktuak dira. Dunbak, kalaxkak, kanpaiak... zintzarriek forma eta tamainaren araberako tonuak sortzen dituzte. Zentzu horretan, artalde bakoitza polifonia bat da, eta esan daiteke, artzainaren soinu

identitate bilakatzen dela. Transhumantzia ia salbuespena da gaur, baina gogoratzea da herrian barna, artzainari ekintza horrek sortzen zion harrotasun unea, zalaparta bizian, hitzik esan gabe, herriari bazihoala/bazetorrela adierazten zionean. Esan gabe doa, artaldearen *bitartez* egiten zuela hori.

### *Landa lanaz*

Gipuzkoako ehun burutik gorako artaldean soinu artxiboa osatzeko ezinbestekoa suertatu zait artzainen eta ardiaren eritimo eta denboretara egokitzea. Ataza horretan, egunsenti eta iluntzeak izan dira grabaketa une nagusiak: artzainak artaldea lokalizatzera, bideratzera edo biltzera irteten direneko uneak. Orduantxe ezagutu ditut lehenengo begiratuan antzeman ezin nituen loturak. Artzaina bitarteko izatera pasatzen zen orduan, eta paisaia dei dezakegun hori irakurtzeko irizpideak ematen zituen. Harrigarria da ordura arte ikusezin zirauten esteka, adierazle, muga eta markez jabetzen hastea. Paisaia lau eta soil dirudiena, ihes puntuz eta lokailuz osatutako eremu erliebetsua da. Maparen kontrakoa. Sareztatutako komunikazio sistema bat da, non modu alinealean elementu bakoitzak beste batera zaramatzen. Elkarri erreferentzia egiten dioten arrastoak izanik, abiapuntuak garrantzia galtzen du, eta helmugaren nozioa lurruntzen da.

Grabaketa bakoitzak, beraz, kontzientzia hartzearen exigentzia zekarren berarekin, eta ezin saihestuzko esku-hartzea. Grabatze ekintzarekiko inmanentea, artzainaren eremuan interbenitzeak tentsio bat suposatzen zuen, horrek zekarren emari epistemologikoarekin batera. Turistikoki egiten den artzaintzaren mundurako gerturapena ez den neurrian (honekin ez dut kontrakoa denik ere esan nahi), erratzea, errepikatzea eta erreakzionatzea eskatzen du. Grabaketa egiteko une eta gune aproposi itzarotea. Egotetik du egitetik bezainbeste.

Bildutako materialari begira, egitasmoak argazkigintzarekin izan dezakeen lotura zuzenaz konturatzen naiz orain: teknikoki inpresionantea da, soporte batean jasotzen den atzitzea den neurrian, argazkigintzan bezala. Erregistratzailea zeu izan arren, metodologikoki distantea eta interbentiboa da aldi berean, erregistratzearen ekintzak eta emaitzak ondorioak sortzen dituen neurrian. Luminikoki mendekoa da, argiaren kokapen eta norabideak baldintzatzen duelako erregistratuko denaren edukia.

Argazkigintzan bada ordu magikoa deritzan denbora bat. Ordu hori egunsentiaren eta iluntzearen ordua da. Orduantxe, eguzkiak zeharka egiten du argi, zuzenean izan beharrean. Argazkiak egiteko

eguneko unerik aproposenak omen dira horiek. Soinu grabagailuak, argazki kamerak ez bezala, soinua erregistratzeko argiaren beharrik ez duen arren, artaldean grabaketa horiek burutzean erabat egituratzaileak izan dira orduok.

Eguzki ordu gorenetan, artaldeak leku freskoak bilatzen ditu orografian, abaroa aukeran. Horien ezean, ardiek beraiek sortzen dute abaroa, euren burua (eguzki izpien berotasuna gaitzen jasaten duen gorputz atala) elkarren artean sartuz. Une horietan artaldea ez da mugitzen, eta, ondorioz, soinurik ez du sortzen.

Bide horretatik, soinuotan, argiarekiko lotura zuzena dagoela esan dezakegu: argiaren neurriek eta norabideek gidatutako lana da. Baieztapen arraroa badirudi ere, berau entzuteak argia entzutea dakar.

### *Abagune erromantikotik ikus-paisaiari buruzko gogoeta batzuk*

Paisaia ez da begien bistara aurkezten zaigun irudi soila. Ez da dakusagun horretan ikusten ez ditugunen gabezia sorta, ezta, ez ikusi arren, bertan irudikatzen ditugun elementuen osaketa ere. Paisaiak gehiago du dakusagunetik ikusi gura dugun tartetik baino, eta, ez da, inondik inora, errealitatearen kategoriara etxekotu daitekeen ebidentzia. Ez da irudimena eta galbahe onirikotik ikusten dugun zera ere. Paisaiak paisaia izateko ihes egin behar digu eskuetatik, itzuri egin behar die gure begiei, naturalizat jotzen den arren, bertan galtzeko eraikia den artefaktu gizatiarra baita. Paisaiak esangura gabeko uzten du subjektu so-egilea, ez baitu sustenga dezakeen ekintza eta lengoaiarik onartzen. Paisaia beti gaindosia da gobernatzeko nahiarentzako. Horregatik da eskopikoki abegitsua eta subjektiboki jazarkorra.

Paisaiak gainditu egiten du begiralea eta galdatu egiten du begiratzeko ekintzan.

Territorioaren sedukzio jolasa izanik, botere harremanek badute presentziarik bertan. Alde batetik, begiraleak ekintza kontenplatiboaren bitartez dakusana dominatzen duela sentitzen du, urrundik erabaki propioz egindako ekintza den neurrian. Baina beste alde batetik, dakusanaren ezaugarri holistikak begiralearen soa jipoitzen du, haratagokoa den eran, orokorra eta neurrigabea den eran. Paisaiaren neurrigabetasunera entregatzen da begiralea; adiera trinkoz ekin eta desarmaturik amaitzen du, gogoia zehaturik.

Paisaiak oroimenarekin zerikusi zuzena dauka, haren hegi izatera pasatuko den heinean, gauzatu ezin daitekeen eremu labain

bezala. Paisaiaren materializazioak, bere kualitate gainezkatzaile, haraindiko eta helezinaren kontra egiten du, fetitxe edo ikonoa delarik ematen duen emaitza. Paisaiaren bizipenak erabateko desegitea dakar (hemen ez dago balioaz hitz egiterik); paisaiaren sublimazioak, berriz, balizko eta baliozko egiten du ordura arte zera bat baino ez zena, eta maneiagarri bilakatzen du. Izendatua eta informaturik, gobernagarri bilakatzen da, autonomia propioa duen egitate gisa; berau horrela izateko baldintzetaz bereizi eta haietara iristeko bidean utzitako arrastoak ezabatzen ditu.

Zentzu horretan, testua anti-paisaia bat da, baina bere irakurketak badu paisaiatik zerbait.

Paisaiak distantzia eskatzen du. Paisaiaren nozioa bera aldentze batetik dator, dela galera dela mehatxu dela ukapen edo ihes batetik eratorritako berrikuspen bezala. Paisaiak banaketa edo desplazamendua eskatzen du, eta beti urrun dago, desioaren objektua bezala, ortzi muga bezala. Paisaia urdina da, Rebecca Solnitzen zentzuan.

### *Soinuaz*

Paisaiaz dugun ezaguera irudizkoa da gehienbat. Ikusmenarekin lotuta, ekintza kontenplatibo baten ondoriora murrizten dugu. Hortaz, kognitiboki bisuala da. Hala ere, eta gaiaren inguruko tratatu bat garatzeko asmorik ez dudan arren, hemen bizipenaren berariazko alderdi sonoroa nabarmentzea dagokidala iruditzen zait. Paisaiaren soinuak esperientziari sakontasuna eta perspektiba ematen dizkio. Areago ere esango dut: paisaiako soinuak bere lurraldean barneratzeko irudiak baino aukera gehiago ematen dizkio subjektu behatzaile/entzuleari. Paisaia horretan, entzulea erresonantzia gorputz bat gehiago izatera pasatzen da, eta uhinen inmaterialtasunak bilduta egoteko aukera eskaintzen dio. Entzumenarekin loturan, irudi paisaia baina *orekatuagoa* da soinu paisaia.

Paisaiaz jardutean, arkitekturaz, kromatismoaz, begetazioaz... hitz egiten da soinuaren ezaupidea aintzakotzat hartu gabe. Paisaiaz darabilgun nozioa mutua da, eta bere buruaz ez beste guztiaz hitz egiten duen arren, solte geratzen da alderdi horietaz hitz egiten duen kakoa. Arazoa beraz, teorikoa bainoago, epistemologikoa da. Gakoa, paisaia zer den baino, paisaia nola den pentsatzen hastean egon daiteke.

Soinuarena azkenean, endogenoki gertatzen den bizipena da. Soinuak inguratu egiten du entzulea. Alderantziz, irudiarena

esperientzia exogenoa da. Irudiari aurre egin behar dio ikusleak. Ez dut hori subjektu ikusle/entzulearen paisaiarekiko permeabilitatearekin lotu nahi, heziketaren, sentsibilitatearen eta gaitasunaren araberakoa baita bizipen hori. Subjektu horren kokapen edo lokalizazio kontu bat dela, ordea, hori bai iruditzen zait, eta modu inbertsoan funtzionatzen duela, gainera.

Ikusmenari dagokionez, paisaiaren nozioak distantziatik bakarrik funtzionatzen du. Banaturik soilik gorde dezake irudiak paisaiaren izaera. Bertan barneratzeak paisaiaren nozioa galtzea dakar (behin irtenda berreskura daitekeena).

Entzumenari dagokionez, paisaiaren nozioak lekukotzatik bakarrik funtzionatzen du. Ezinbesteko baldintza du soinuak bere entzun-eremuan entzulea barneratzea. Bertatik irteteak paisaiaren nozioa galtzea dakar.

Oroimenaren soroan elkartzen dira biak, baldintza fisikoez libre den bizipena izanik, bietatik ala batetik ere ez duelako. Gauza bera esan dezakegu estetikaz, pertzepzioa zentzumen batera murrizten ez duen esperientzia baita. Erratuko ginateke paisaiaren estetikaz hitz egiten hasiko bagina; izan ere, estetika eta paisaia ez al dira kategoria ontologiko beraren zutoin?

Soinuaren izaerak edo irudikapen inmaterialak ondasun kultural edo natural gisa aintzat hartua izatea zailtzen du. Paisaiaz egiten ditugun iruzkinak, paradoxikoki, estetikoak dira. Aralarko grabaketa hauek, besteak beste, artzaintza ondare kulturala dela dioten irakurketak aberastu beharko lituzkete, baita paisaia ulertzeko moldeetan bestelako itzulpenak entseatu ere. Entzungor egitea litzateke kontrakoa... oraingoan bai, literalki.

## GRABAKETA #03

- 340 buruko artaldea (8 ar/332 eme)
- Lekua: Arbelo
- Artzaina: Gerardo Garmendia Salsamendi «Mozo»
- Ordua: 08:15

Igaratzako aterpean gaua eman eta egunsentian, artzain eta artalde bila abiatu naiz. Doniturrieta Garaikoan, behelainoak inguratuta, auto hotsa entzun dut eta segituan jo dut soinua entzun dudan lekurantz. Artzain bat topatu dut bere txakurrarekin autoan sartuta, artaldearen bila abiatzeko prest. Nire asmoak azaldu eta eurekin eraman nau.

Ontzanburuko Ekialdeko magaleraino egin dugu bidea, eta bertan kokatu gara, sakanari begira. Ardiak ikusi ditugu; arrasto zuri mordoia baino ez niretzako. *Mozok*, dunba hotsari erreparatuta, Errezilgo Zinkunegiren artaldea identifikatu du lehenengo. Errezeloz jarraitu du sakanerantz begira eta, geroago, lasaiago, kalaxkak ere entzuten zirela esan dit. Hori dela bere artaldea, kalaxkaduna, eta Zinkunegirenekin eman izango zutela seguruenik gaua. «Orain bakoitzak bere bidea hartuko dik» esan, eta berak adierazitako bidetik, arrasto zuriz osatutako multzoa bitan banatu da, bere kasa, bazkara. Beldarrainen artaldea seinalatu dit gero. Behorren zintzarri hotsekin nahasturik entzuten dira ardien kalaxka hotsak.

## GRABAKETA #12

- 339 buruko artaldea (13 ar/326 eme)
- Lekua: Arritzaga erreka
- Artzaina: Javier
- Ordua: 19:15

Javier artzainak, lehengusuen laguntzaz, ardiak Kantinarantz eramaten dituen unean egindako grabaketa da. Javier eta bere txakurra atzetik doaz, artaldea xaxatzen. Lehengusuak, berriz, aurretik: bata mando ganean eta bestea behor ganean, artaldeari hots egiten. Arritzaga erreka zubia pasatzen ari zirela egin genuen grabaketa. Kantinara joateko arrazoa: biharamunean hartu beharreko dutxa, bizkarroien kontrakoa.

## GRABAKETA #08

- 458 buruko artaldea (4 ar / 454 eme)
- Lekua: Zotaleta bidea
- Artzaina: Dionisio Goitia Alberdi
- Ordua: 09:13

Arbelon, ardiak nondik agertuko zain  
 gaudela ikusi dugu Dionisio. Urrunean,  
 errekan gora, mando gainean dator, doinu  
 eder bat kantatuz eta txistukatuz. Hortik  
 pixka batera, haren atzetik ibili gara,  
 trakets, nondik joko zuen asmatu ezinik.  
 Topo egin dugunean, gure asmoak azaldu  
 eta ardien pasea grabatzeko lekua adostu  
 dugu. Esan digunaren arabera, egunero  
 abiatzen da goizeko zazpiak aldean, mando  
 gainean, bordatik Ganbo aldera. Arratsean  
 ardiak jaisten ditu errekarara, ura edatera.  
 Gero Menditxiki inguruan uzten ditu,  
 iparralderantz ematen duen bizkarrean,  
 bazkan.

Kalaxkak dira zintzarri gehienak eta hiru  
 bat dunba. Artaldean badira bi ahuntz  
 kanpai moduko zintzarriarekin. Haizea  
 entzuten da tarteka, eta bukaera aldean  
 txakurraren hats hotsa.

Grabaketa bukatu arte itxarongo du  
 Dionisiok. Hitz batzuk trukatu eta bordara  
 gonbidatu gaitu, ardoa edan eta berak  
 esan bezala, Eroskiko gazta jatera. Bihotz  
 handiko artzaina iruditu zaigu, bromazalea  
 eta umore zorrotzekoa.





↑ *Enirio*, Nader Koochaki, 2009.

